

5. kapitulua

AGAKO EUSKARAZKO LIBURUEN ZENTSURA, ZENBAKITAN (1975-1983)

Ana Gandara Sorarrain
(UPV/EHU)

Dirudienez, moral katolikoarentzat bezalatsu, bi eratako bekatuak daude zentsurarentzat: egin egiten diren ekintza gaitzoak eta egin gabe uzten diren ekintza onak. Biak dira bekatu.

(Torrealdai 2000)

1. SARRERA

kapitulu honen helburua da, MHLI ikertaldearen eskutik, frankismo moko zentsura sistematik pasatako 1975-1983 bitarteko euskarazko liburu erregistratuen datuak eskuragarri jartzea irakurlearendako. Horretarako, aurretiaz gainerako kapituluetan aipagai izan diren datuak, horiei gaineratu zaizkien bertze hainbat daturekin batera, SPSS programa estatistikoarekin landu ditugu. Hala, idatzia antolatu dugu ikergai diren urte horietan zentsura aparatutik pasatako euskarazko liburu datuetan interesa dutenendako eta datu horiek ikerketarako behar dituztenengan pentsatuaz.

oinarrizko lau ataletan banatua, hasierako sarrera laburraz gain, metodologia, emaitzak eta laburpen-ondorioak izanen ditugu hizketagai. «Metodologia» atalean eginiko azterketa kuantitatiboaz, lanabesaz, datu bilketaz, horien azterketaz eta sorturiko arazoez aritu gara. «Emaitzak» antolatzeko, orokorrean, eskema berari jarraitu diogu: lehenik, kasuan kasuko aldagai nagusiari dagozkion datu orokorrak eskaini ditugu eta, segidan, aldagai hori lotura esanguratsua duen bertze aldagai zenbaitekin tratatu dugu, datuak ehunekoetan ere eskainiaz egokia deritzo izan diogun kasuetan. «Laburpen-ondorioak» atalean aitzinez deskribaturiko datuetako ideia nagusiak laburbildu ditugu.

Edozein gisatan, bigarren atalean azalduko dugunez eta liburu honetako gainerako kapituluak garatzeko gertatu den gisa, bilduriko datuak guztiz baldintzatu dituzte Alcalá de Henareseko *Archivo General de la Administración* artxibategiak (AGA) eskainitako lan aukerak eta bilketa erregistro nahiz ordenak. zailtasunak zailtasun, mugak deskribatu eta modu eraginkorrean eskaini ahal izan dira.

Hala, bada, datuak ahalik eta ulerkorren eta esanguratsuen izateko asmoz eskaini ditugu gisa horretan; izan ere, nahi baikenuke lan honetan bilduriko datuak bere horretan eskainiak izateaz haratago, etorkizuneko bertze ikerketa batzuetarako oinarri izan dadin. Izan ere, egundaino ez dugu aurkitu, estatistikan oinarriturik, AGAn bilduriko zentsura espedientei buruzko azterketa kuantitatibo sistematikorik. Horregatik, datuen irakurketa eta laburpen oinarritzkoa eskaini dugu, datuak berak tratatzea eta ahalik eta erabilgarrien eskaintzea izan delarik antolaketaren asmo nagusia.

2. METODOLOGIA

2.1. **Datu bilketa**

Datu horiek biltzeko metodologiari dagokionez, liburu honen sarreran azaldu denez, Alcalá de Henaresen kokaturiko AGAra egin ditu 12 bidaia MHLI ikertaldeak. Joan-etorri horiek kideek talde desberdinetan egin dituzte, betiere azken bidaiari izandako norbait joan delarik bidaia berrian, informazio bilketa zein puntutan geratu den ahalik eta ongien adierazi eta lanari egoki ekin ahal izateko.

AGA 8:30-14:30 bitarte irekia izaki aste barruan, ordutegi horren baitan arakatu dira zentsura espedienteak biltzen dituzten kaxak, betiere «Normas acceso y consulta en sala»rako Ministerio de Educación, Cultura y Deporte eskura jarritako «Normas para el acceso y consulta de documentos en los Archivos Estatales» arauari jarraiki. Ikertaldeko kideek modu sistematikoan aztertu dituzte 1975-1983 bitarteko euskarazko liburu guztien espedienteak, horretarako, lehenik, euskarazko liburuen katalogoa sortu delarik AGAn bertan dagoen katalogo zabaletik euskarazkoak bilatuta eta Excel fitxategietan antolatuz, urteka.

Bidaia bakoitzean transkribatu dira, ordenagailuz, espediente fitxak, kasuren batean (interesgatik, zentsuratutako atalak bilduta gera-

tzeko eta bertze) fotokopiak eskatu direlarik. Espediente guztiak behar bezala identifikatu eta bildu direla egiaztatu da espresuki hori egiteko asmoz antolaturiko bi bidaiatan.

2.2. **Datu azterketa**

Liburu atal honetan AGAko 1975-1983 bitarteko euskarazko liburu- zentsura fitxen azterketa kualitatiboa egin da, baina datu horiek kuantifikatu ondotik aztertu direlarik. Horretarako, zentsura fitxetako datuak zenbagarriak izanik, proba estatistikoak erabili dira beren azterketarako, azterketa dokumentala egin delarik. Gainera, analisi deskriptiboa egin da, frekuentzia, portzentaje eta batez bertzekoak deskribatuko direlaketz, harreman inferentzialik sortu gabe (Dendaluze 2002). Datuen azterketari dagokionez, SPSS programaren 24.0 bertsioarekin egin dugu lan eta datuak informazio bihurtzeko Excell programa erabili dugu.

Azterturiko espedienteak 545 izan dira. Espediente horietatik guztietatik 14 aldagairi erreparatu zaie: alea/ale zatia, espediente mota, erresoluzioa, generoa, Haur eta Gazte Literatura (HGL) espedienteak, HGL generoa, HGL azpigeneroa, HGL-didaktika azpigeneroa, HGL-literatura azpigeneroa, informetako komentario nagusiak, Irakurle erreferentzia, itzulpena, tirada eta urtea.

Datu azterketarako aldagaiak erabakitzeko irizpideak bi izan dira. Batetik, espedienteetan, fitxetan, modu sistematikoan agertzen diren ataletatik (data, signatura, obra, egilea, itzultzailea, eskatzailea, tirada, orrialde kopurua, prezioa, espediente mota (HGL), espedienteak, Irakurlea, informea, alea edo ale zatia, erabakia, oharrak), 7 hautatu ditugu aldagaitzat: data, itzultzailea, tirada, espediente mota, Irakurlea, alea edo ale zatia eta erabakia. Bertzetik, horiei gaineratu dizkiegu zentsura fitxen azterketarako esanguratsuak iritzi diegun aldagaiak (1. taula):

1. taula

Gaineratutako aldagaiak eta horien sailkapena

HGLren baitako azpisailkapena	Didaktika vs Literatura
HGLren baitako generoak	erlijio dotrinak gramatika eta hiztegiak hainbat genero (hainbat genero, testu bakarrean) komikia narratiba poesia saiakera testuliburua txisteak
+	antzerkia HGL antologia (poesia, testu azterketa, bertso eta ipuin bilduma) HGL zehaztugabea ¹ HGL zehaztugabea (Biblia) HGL zehaztugabea (narratiba + poesia) HGL narratiba HGL narratiba (komikia) HGL poesia/narratiba? HGL testuliburua HGL testuliburua (euskara eskuliburua) HGL testuliburua (hiztegi + haur kanta) zehaztugabea (artikulu bilduma) HGL testuliburua (irakurtzen hasteko ipuinak) komikia zehaztugabea zehaztugabea (aldizkaria?) zehaztugabea (erlijio liburua) kritika/teoria kritika/teoria? zehaztugabea (erlijio liburua/komikia) zehaztugabea (aldizkaria) zehaztugabea (argazki liburua) zehaztugabea (argazki liburua?), zehaztugabea (egutegia) zehaztugabea (elkarrizketa liburua) narratiba narratiba/poesia/antologia narratiba/poesia/antologia? poesia poesia (bertsoak) poesia/kritika-teoria? saiakera saiakera (biografia) saiakera/testuliburua? testuliburua testuliburua (gramatika eta testuak) testuliburua (gramatika) testuliburua (hiztegia)

iturria: guk sortua.

¹ «zehaztugabea» medio aditzera eman nahi izan dugu inolako generotan kokatu ezin izan den testua.

Horrez gain, zentsura fitxetan ageri diren «Infantil» eta «Infantil-niñas» atalak multzo berean sartu ditugu (HGL), datuak ez baitira esanguratsuak bataren eta bertzearen arteko alderaketa eginda.

Azkenik, kontuan izan behar da lanean ale kopuruez ari garenean zentsura fitxetan agertzen den datuaz ari garela; erran nahi baita, zentsura fitxetako ale kopuru datuak ez duela zertan bat etorri egiazki argitaratu zen ale kopuruarekin. Gisa berean, urteko lanen datua ere zentsurara aurkezturiko lanen urteko datua dela ulertu behar da. Izan ere, kapituluaren sarreran adierazi dugunez, data tarte jakin batean zentsura sistematik pasatako liburuen gaineko emaitzak dira.

2.3. Datuen bilketarako zailtasunak

Hainbat zailtasun sortu dira espedienteetako datuak modu sistematikoan biltzeko. zailtasunak bi multzo nagusitzan bana daitezke: bate-tik, AGAren ustiaketarako berarako sortu diren zailtasunak eta, bertze-tik, zentsura fitxen ustiaketan sortu direnak.

Lehenak, AGAren antolaketatik eratorriak izan dira; izan ere, datu basea publikoki eskuragarri ez egoteak luzatu egin du lana, euskarazko liburuen erregistroa bera sortu behar izan baitu MHLI ikertaldeak. Orduetgia bera goizez bakarrik izateak berekin ekarri du Alcalá de Henaresera eginiko bidaiak luzatu beharra, ahalik eta espediente kutxa gehien arakatu ahal izateko.

Bigarren zailtasun moten kasuan, espediente zenbaiten signaturak adierazten zuen kaxan ez da espedienterik topatu, espedienteen ez zen datua agertzen edota, agertu arren, ulergaitza zen daturen bat.

«Irakurlea» aldagaiaren kasuan, beti ez da argi agertzen Irakurle erreferentzia. Hori dela eta, zalantzazko zenbakia den kasuetan (argia ez delako), «?» jarri dugu ondoan eta, zenbaki konbinazioa ziurtzat hartu dugun kasu paralelorik badago, aparteko multzoa osatu dugu zalantzazko horiekin. Adibidez, «30-H» Irakurle multzoa ziurra izanik eta bertze bi agerpenetan «H»a zalantzazkoa izan bada, «30-H (?)» multzo paraleloa sortu dugu. Horrez gain, kontuan izan behar da Irakurle-zenbaki korrespondentziak ez duela zertan bakarra edo konstantea izan; hala, baliteke zenbaki berarekin gibelean Irakurle bat baino gehiago izatea eta Irakurle berak zenbaki edo izen —baita letra ere— desberdinekin sinatu izana.

Horietan guztietan agertzen den informaziotik, 14 aldagai ditugu aztergai, nahiz eta horietarik zenbaitetan ezin izan den datua eskuratu (2. taula). Egin kontu, batetik, taulan zalantzazko gisa zenbatu ditugunak lorturiko emaitzen artean daude zenbatuak, falta direnak ez bezala; bertzetik, «*» bidez adierazi ditugu espedienteetan zehazten ez diren aldagaiak eta ikertaldeak osatu dituenak.

2. taula

Aldagaiak, eskuratu eta falta diren datuak

	Lorturiko emaitzak	zalantzan	falta direnak	falta direnen zehaztapenak
Erresoluzioa	532	—	12	11 daturik gabe agertzen dira (horietarik 9, datarekin bakarrik adieraziak). faltan diren datuetarik bat da kaxarik aurkitu gabeko espedientearena: <i>Euskal herriko ipuin eta kondairak</i> , Joseba Gereñorena.
Espediente mota	544	—	1	<i>Euskal herriko ipuin eta kondairak</i> (1978, Joseba Gereño): kaxa zenbakia ez dago ongi eta ezin izan da aurkitu.
Generoa*	545	—	—	kaxa 1 falta bada ere, liburuaren generoa jakin ahal izan da.
Haur eta Gazte Literatura (HGL) azpigeneroa: literatura edo didaktika*	255	—	290	faltan diren datuetarik bat da kaxarik aurkitu gabeko espedientearena: <i>Euskal herriko ipuin eta kondairak</i> , Joseba Gereñorena. Gainerako guztien kasuan, ezin izan da informazio hori aurkitu, espedienteetan zehaztu gabeko aldagaia izanik ikertaldeak berak egin baitu horien bilaketa.
HGL bai edo ez	544	—	1	kaxa ez da aurkitu (ondorioz, ezin jakin da nola klasifikatu zuten Irakurleak)

	Lorturiko emaitzak	Zalantzan	falta direnak	falta direnen zehaztapenak
HGL-didaktika: azpigeneroa*	30	—	290	falta diren horietan ezin jakin izan da HGL-didaktika edo HGL-literaturakoak diren.
HGL generoa*	255	—	290	faltan diren datuetarik bat da kaxarik aurkitu gabeko espedientearena: <i>Euskal herriko ipuin eta kondairak</i> , Joseba Gereñorena. Gainerako guztien kasuan, ezin izan da informazio hori aurkitu, espedienteetan zehaztu gabeko aldagaia izanik ikertaldeak berak egin baitu horien bilaketa.
HGL-literatura: azpigeneroa*	153	—	292	falta diren horietan ezin jakin izan da HGL-didaktika edo HGL-literaturakoak diren.
Informetako komentario nagusiak*	543	—	2	<i>platon i</i> (1973, Iokin Zaitegi Plazaola) lanaren txostena bertze lan bati dagokio. <i>Gero</i> «(Después) (bilingüe)» (Pedro Axular, 1976) lanaren espedienteetan ez da txostenik ageri.
Irakurle erreferentzia	520	106	25: 24 ez da ageri + 1 data	Irakurle erreferentzia gertzen ez denetarik bat da kaxarik aurkitu ez dena, kaxa zenbakia gaizki egoteagatik: <i>Euskal herriko ipuin eta kondairak</i> (1978, Joseba Gereño)
		30-23? (1)		
		Ezezaguna-23 (72)		
		Sinadura (1)		
		Zehazgabea (24)		
		Data (1)		
		30-«Albizu»? (1)		
		H (ondorioztatua) (1)		

	Lorturiko emaitzak	Zalantzan	falta direnak	falta direnen zehaztapenak
		30-H (?) (2)		
		30-«M. ^a C. Rute» (sinadura posiblea) (2)		
		30-23?Albizu? (1)		
		27-H-Hermand (?) (ezabatua) (1)		
		2 (ezabatua) (1)		
Itzulpena	545	—	—	kaxa 1 falta bada ere, liburuaren generoa jakin ahal izan da.
Liburu alea/ale zatia al dagoen	544	—	1	<i>Euskal herriko ipuin eta kondairak</i> (1978, Joseba Gereño): kaxa zenbakia ez dago ongi eta ezin izan da aurkitu.
Tirada	535	2 (bi zenbaki agertzen dira, bakoitzean): 500/1.000 3.500/30.000	10	Ez da datua ageri.
Urtea	545	—	—	—

iturria: guk sortua.


Tiradaren informazioari dagokionez, kasuren batean bi zenbaki desberdin agertu dira espedientean; halakoetan, bi zenbakien batura egin dugu. Adibidez, 1982an bada espediente bat 3.500 eta 30.000 ale, bi kopuruak, erregistratuak dituen zentsura espedientean; kasu horretan egindako batura 33.500 alekoa izan da.

3. EMAITZAK

3.1. Datu orokorrak

3.1.1. *Espedienteak, urteka*

Urtekako espediente kopuruaren joera beheranzkoa izan zen ikergai ditugun 1975 eta 1983 urte bitartean, salbu eta 1978an eta 1983an, zeinetan horietariko bakoitzaren aurreko urtean baino 10 eta 4 espediente gehiago sortu ziren, hurrenez hurren (1. grafikoa).



1. grafikoa

Espediente kopurua, urteka
(iturria: guk sortua)²


Beherakadarik handiena 1975etik 1976rakoan gertatu zen, 79 espedienteko aldearekin; txikiena, aldiz, 1981etik 1982ra bitartean, 7 espedientekoarekin.

² Grafikoak koloretan ikusteko QR-lasterbidea eskuragarri dago kapitulu honetako «7. Grafikoen aurkibidea» atalean.

3.1.2. Tiradak: kopuruak, urteka

Urtekako espedienteekin gertatu gisa, orokorrean, urtekako ale kopuru (tirada) totalaren joera beheranzkoa izan zen (2. grafikoa). Alabaina, datuon irakurketa osatua egiteko, ezinbertzekoa da hainbat alderdiri hurbilagoetik erreparatzea.


Lehenik, kontuan izan behar dugu joera beheranzkoa izan arren, 1978an datuek zertxobait gora egin zutela, baina joera orokorrari eragin gabe. Bigarrenik, «Urteko: ale kopurua, espediente kopurua eta ale kopuru espedienteko media» grafikoan (3. grafikoa) islatuetan deskribatu gisa, 1975etik 1976ra bitartean izan zen ale kopuru jaitsierarik handiena.



2. grafikoa

Tiradak: ale kopurua, urteka
(iturria: guk sortua)

Hirugarrenik, datuok ez dira berdin banatzen espediente kantitatearekin korrespondentzian irakurtzen baditugu (3. grafikoa); izan ere, 1979a (3.773 ale kopuru media, espedienteko) eta 1982a (4.743 ale kopuru media, espedienteko) dira, hain zuzen ere, espedienteko ale kopuru media handiena duten urteak.



3. grafikoa


**Urteko: ale kopurua, espediente kopurua
eta ale kopuru espedienteko media**

(iturria: guk sortua)

Azkenik, kontuan izan behar da zenbait kasutan espediente bakar batzuek izan zirela urteko ale kopuru totala gehien igo zutenak. Horiez ohartzeko, urteko ale kopuru media erakusten duen taula prestatu dugu, urteko ale kopuru totalarekiko eta urteko espediente kantitatearekiko korrespondentzian (3. grafikoa).

a) Tirada handiak

Ale kopuruei dagokienez, urtekako tiraden zenbatekoak ikusirik, hiru mailatan definitu ditugu: 1.000 alera bitartekoak (1.000koak barne) «tirada txiki» izendatu ditugu; 5.000 ale edo gehiagokoak, «tirada handi» eta, tartekoak, «tirada ertain».



4. grafikoa

Tirada handienak: ehunekoak, urteka

(iturria: guk sortua)

«Tirada handienak: ehunekoak, urteka» grafikoan (4.a) txertatu ditugu 5.000 aletik gorako tiradei dagozkien datuak. Batetik, «Tirada handienak %, urteko tiradarekiko» delakoarekin, bildu nahi izan ditugu 5.000 ale edo hortik gorako tiradak urteko ale kopuru guztiaren ehuneko zenbat izan ziren; bertzetik, «Tirada handiena duten espedienteen %, urteko espediente kantitatearekiko» delakoarekin, 5.000 ale edo gehiagoko espedienteak ehuneko zenbat izan ziren, baina, kasu honetan, urte osoko espediente kopuruarekiko. Hala, deigarria da 1982an islatzen dena, aztergai ditugun urteetako espediente gutxien izanik (16), 5.000 aletik gorako tiraden ehuneko handiena baita urte horretan (% 64,50) eta, era berean, ale kopuru handiena zuten espedienteak urte horretako espedienteen % 50 izan ziren.

Hortaz, 5.000 aletik gorako espediente kopurua gehienez % 37 ingurukoa izan bazen ere (salbuespena, 1982a: % 50ekin), 1975-1977 bitartean espediente horiek biltzen dituzte urteko ale kopuru guztiaren % 50 inguru.

Datu horiei gaineratu behar zaie ale kopuru handietan handienak bildu zituzten espedienteak (3. taula):

3. taula


Tirada handietan handienak (1975-1977)

Urtea	Tirada	Espediente kantitatea
1975	10.000	19
1976	10.000	3
1977	45.000	1
	15.000	1
	10.000	2

iturria: guk sortua.

b) Tirada txikiak

Tirada txikiena duten espedienteetako datuekin (5. grafikoa) alderatuz gero, ohartzen gara urte guztietan 1.000 ale edo gutxiagoko espediente ehunekoa, urteka, handiagoa dela, urtekako ale kopuru ehunekoarekin alderatuta. kontrakoak gertatzen da, ordea, 5.000 edo gehiagoko tiraden datuetan: tirada handienaren ehunekoa handiagoa da, espedienteena baino.



5. grafikoa


Tirada txikiak: ehunekoak, urteka

(iturria: guk sortua)

Horiek horrela, sumatzen da 5.000 edo hortik gorako espedienteen kasuan, espediente gutxiagok bildu zutela ale kopururik handiena, urteko; aldiz, 1.000 ale edo gutxiagoko espedienteen kasuan, espedienteen ehunekoa handiagoa da horietan bildu zen ale kopurua baino.

c) Tirada ertainak

1.000-5.000 bitarteko tiradadun espedienteak, ertain gisa definitu ditugunak, izan ziren nagusi 1975-1983 bitartean, salbu eta 1982an, urte horretan zertxobait egin baitzuten beherantz (% 43,75) (6. grafikoa). 1983an gorakada nabarmena egin zuen tirada ertaineko espedienteen portzentajeak. Horrez gain, urteko espedienteen ehuneko handiena biltzen badute ere, kasurik gehienetan, urteko ale kopuruari dagokionez, 1981 eta 1983an izan ezik, gainerakoetan ehuneko txikiagoa da.




6. grafikoa

Tirada ertainak: ehunekoak, urteka
(iturria: guk sortua)

3.1.3. Alea bai/ez, urteka

Azpiatal honetan, espedienteetan atxikitzen ziren liburu/aleei egiten diegu erreferentzia (7. grafikoa). Espediente guztietarik, 1976 eta 1978ko espediente banatan ezin izan da libururik badagoen edo ez zehaztu, kaxetan ez baita espedientea topatu.

Datuek erakusten dute gutxiago direla alea/ale zatia atxikia duten espedienteak, salbu eta 1975, 1982 eta 1983an.



7. grafikoa

Alea/ale zatia bai ala ez, urteka

(iturria: guk sortua)

Hiru urte horietan espedienteetarik % 60,49, % 87,5 eta % 95ak dute atxikia, hurrenez hurren, alearen kopia bat (edo zati bat); kontrara, gainerako urteetan, espedienteen % 50ak baino gutxiagok du (4. taula).

4. taula

Alea/ale zatia bai ala ez, urteka, ehunekotan

<hr/>	
Alea/ale zatia dute	
<hr/>	
1975	% 60,49
1976	% 45,78
1977	% 11,27
1978	% 25
1979	% 38,46
1980	% 37,84
1981	% 30,43
1982	% 87,5
1983	% 95

iturria: guk sortua.

Hurrengo atalean ikusiko denez, azken bi urteetan HGLko lan guztiak dira, hain justu, alea dutenak (ikus 8. grafikoa).


3.2. HGL

Atal honetako datuak espedienteetan «Infantil» eta «Infantil-niñas» gisa sailkatuak izan zirenak ditugu aztergai, multzo berean sarturik (ikus bateratze hori dela eta «Metodologia» atalean errana).

3.2.1. HGL: datu orokorrak

a) HGL espedienteak

Aztertu diren espedienteetan aldea sumatu da HGL espedienteen urtekako ale kopuruari dagokionez (8. grafikoa). HGL espedienteek nabarmen egin zuten behera 1977an, nahiz eta HGL ez ziren espedienteen kopurua nahiko egonkor mantendu. Ordutik aitzina, 1981a izan zen HGL gutxien bildu zituen urtea.




8. grafikoa

HGL espedienteak, urteka

(iturria: guk sortua)

b) HGL espedienteak, ehunekotan

Zenbaki horiek ehunekotan begiratzen baditugu (9. grafikoa), ohar-tzen gara HGL direnen eta HGL ez direnen arteko proportzioan joera aldaketa izan zela 1980an. 1975ean HGL espedienteen proportzioa handiago izan bazen ere (HGL: 61,11 vs HLG ez: 38,89), 1976-1979 bitartean HGL ez ziren espedienteen proportzioa handiagoa izan zen; alabaina, 1980tik aitzina, HGL espedienteen ehunekoa nabarmen izan zen handiagoa gainerako espedienteena baino.




9. grafikoa

HGL: espediente ehunekoak, urteka
(iturria: guk sortua)

c) HGL tiradak

Urtekako ale kopuruari dagokionez (10. grafikoa), beherakada handia gertatu zen 1975etik 1976ra, HGLko 303.800 ale gutxiago argitaratu baitziren 1976an —espediente kopuruak ere nabarmen egin zuen behera (ikus 1. grafikoa)—. 1977an ere beheranzko joerak jarraitu zuen arren, 1979an 10.000 aletik gorakoak izan ziren espedienteetan bilduriko zenbakiak. Hortik aitzina, ordea, poliki-poliki beheranzko joerak iraun zuen, salbu eta 1982an.



10. grafikoa

HGL tiradak, urteka: HGL vs gainerako espedienteak
(iturria: guk sortua)

d) HGL tiradak, ehunekoak

Datu horiek HGL ez ziren espedienteetako tiradekin alderatuta joeren irakurketa osotuagoa agertzen da (10. grafikoa eta 5. taula). Bate-tik, kontrako joerak nabari dira: HGL tiradek 1977ra arte beheranzko joera izan zuten gisa, goranzkoa izan zen HGL ez zirenen kasuan; are gehiago, 1979an HGL ez ziren tiradek behera egin (67.500 behera) eta goraka egin zuen HGLa urteko ale kopuru guztirakoak (41.200 gora); kontrara, 1982an (HGL: 50.125 gora; HGL ez: 18.696 behera). Azken-ik, buelta berriz ere 1983an: HGL aleek behera (57.125 ale behera), gora, HGL ez zirenen ale kopuruak (5.000 ale gora).

5. taula

HGL ale kopuru, espediente eta HGL ez direnak, urteka, ehunekotan

	HGL ale kopurua	HGL espedienteak	HGL espedienteak ez direnak
1975	% 76,83	% 61,11	% 38,89
1976	% 52,83	% 39,76	% 59,04
1977	% 18,00	% 14,08	% 85,92
1978	% 31,01	% 28,40	% 70,37
1979	% 56,17	% 48,08	% 51,92
1980	% 67,99	% 54,05	% 45,95
1981	% 71,15	% 52,17	% 47,83
1982	% 97,19	% 87,50	% 12,50
1983	% 85,32	% 95,00	% 5,00

iturria: guk sortua.

Bertzetik, ehunekoiei dagokienez (5. taula), 1977 eta 1978a salbu, gainerako urte guztietan ale kopururik handiena HGL espedienteek bazten dute.

Hala, bada, HGL urtekako espedienteen eta ale kopuruaren zenbakiak kontuan hartuta, azpimarratzekoak dira:

- 1976an HGL espedienteen ehunekoa bertzelakoena baino txikiagoa izan arren (% 39,76), espediente ale kopuru handiena bildu zuten espediente horiek (% 52,83a).
- 1979 HGL espedienteen ehunekoa bertzelako espedienteena baino txikiagoa izan arren (% 48,08), ale kopurua handiagoa bildu zuela (% 56,17).

Horiek horrela, ondoriozta liteke 1980a izan zela HGL zirenen eta HGL ez zirenen artean urtekako ale kopuru eta espediente kantitateetan joera aldaketa markatu zuen urtea: espediente gutxiago agertzeaz gain, HGL espedienteen portzentajeak nabarmen egin zuen gora eta HGLkoek bildu zuten espedienteko ale kopuru mediarik altuena nabarmenki.


3.2.2. *HGL sailkapena: didaktika vs literatura*

a) HGL sailkapena: datu orokorrak

Aztergai dugun urte bitarteko euskal liburuen espedienteak HGLri dagozkion bi multzo nagusitan bana daitezke: literaturazkoak eta didaktikakoak. Lehenetarik 155 espediente daude eta, bigarrenetarik, 100. Hala, gainerakoak 288 dira.

HGL sailkapena, urteka

HGL espedienteek urteka izan duten presentziari dagokionez (11. grafikoa), 1975ean HGL espedienteak heren bat gehiagoz gailendu baziren ere, 1980ra arte itxaron behar da berriz ere espediente horien gailentasuna agertzeko. Gailentze hori ordea, ez da berriz ere nabarmen eginen 1982 eta 1983a arte.




11. grafikoa

HGL urteka: HGL (didaktika eta literatura) vs gainerako espedienteak
(iturria: guk sortua)

HGL sailkapena, ehunekotan

Datu horiek berak HGL espedienteak didaktika eta literatura sailkapenean banatuta eta ehunekotan begiratzen baditugu (12. grafikoa), bi ideia dira azpimarragarri.



12. grafikoa


Literatura vs didaktika vs gainerako espedienteak, ehunekoak
(iturria: guk sortua)

Batetik, 1979ra bitartean HGL espediente ez zirenen ehunekoa handiagoa izan zen (1975ean salbu), goian aurreratu gisa; 1980tik aitzina, ordea, HGLkoak gailendu ziren. Bertzetik, 1979ra bitartean HGL-literatura eta -didaktika artean konstanterik sumatzen ez bada ere, 1980tik aitzina, aurreko urteetan ez bezala, HGL-literaturazko lanak gailentzen dira (didaktikazkoak izan zirelarik nagusi, salbuespen gisa, 1982an).

3.2.3. HGL, generoak

a) HGL generoak: datu orokorrak

HGLako gisa klasifikatu ziren espedienteen artean, generoari loturiko 10 kategoria banatu ditugu: «erlijio dotrinak», «gramatika eta hiztegiak», «hainbat genero», «komikia», «narratiba», «poesia», «saiakera», «testuliburu» eta «txisteak». Horiek espedienteetan 1975-1983 urte bitartean izan zuten presentziari erreparatzen badiogu, narratiba eta testuliburu lanak (124 eta 77, hurrenez hurren) gailentzen direla ikusten dugu, antzerkia, txisteak eta saiakera direlarik agerpen gutxienekoak, agerpen banarekin. Tartean dira «komikia» (20), «gramatika eta hiztegia» (16), «erlijio doktrinak» (7), hainbat genero (6) eta «poesia» (2) delakoak.



13. grafikoa

HGL: generoak, urteka

(iturria: guk sortua)


a.1. HGL generoak, urteka

Datu horiek berak urtekako banaketa islatzen duen 13. grafikoan ikus ditzakegu; kasu honetan, urteko genero bakoitzeko zenbat espediente zenbatu diren agertzen da, azken koloman HGL ez diren espedienteen kopuruak agertzen direlarik.

Nabarmentzekoak dira «narratiba» generoak 1975ean izan zuen agerpenak (64 espediente) anitz egin zuela behera hurrengo urteetan. «Txiste», «antzerki» eta «saiakera»ren kasuan, agerpen bakarra dute, 1975ekoa.

a.2. HGL generoak urteka, ehunekoak

Deskribatu datuei ehunekotan erreparatzen badiegu (14. grafikoa), hau da, urtekako HGL espedienteetatik generokako portzentajea aztertuz, ohartzen gara lehia handiena narratiba eta testuliburuak izan zela.



14. grafikoa

HGL: genero ehunekoak, urteka
(iturria: guk sortua)

Izan ere, azpigenero horiek izan ziren urtez urteko HGL espediente gehien bildu zituztenak: HGL-narratiba generoa 1975, 1980 eta 1983an gailendu zen gisa, HGL-testuliburuak 1976, 1977, 1979 eta 1982an gailendu ziren.

a.3. *HGL: didaktika eta literatura generoak*

Genero horietarik bakoitzean modu honetara banatzen dira HGL espedienteen baitan banatu ditugun didaktika eta literatura sailkapenak. Batetik, HGL-didaktikari dagozkio 100 espediente: «testuliburuak» (78), «gramatika eta hiztegia» (15) eta «erlijio eta doktrinak» (7) generoetan banatuta.

Bertzetik, HGL-literaturari dagozkio 153 espediente: kasu honetan «narratiba» (122), «komikia» (20), «hainbat genero» (6), «poesia» (2), «antzerkia» (1), «txisteak» (1) eta «saiakera (biografia)» (1) generoak agertzen direlarik.

3.2.4. *HGL irakurleak*


Gogoan izan behar dugu, «Metodologia» azpiatalean azaldu dugunez, Irakurleek beren burua zenbaki bidez identifikatzen zutela, baina ez beti zenbaki berarekin. Hortaz, zenbaki bakoitzaren atzean ez da Irakurle bakarra edota berbera izan beharrik.

a) HGL espedienteetako Irakurleak

HGL espedienteak irakurri zituzten Irakurle guztiak ageri dira 15. grafikoan, espedienteetan agertu bezala izendatuak. Hortaz, Irakurle horiek berek HGL ez diren bertze espedienterik sinatu badute ere, datu horiek ere eman ditugu.

Batetik, datuetan agerikoa denez, hainbat zenbaki dira gehien errepikatzen direnak, konbinazio desberdinetan: 22, 23 eta 30a.

Bertzetik, hainbat Irakurle erreferentzia HGLrekin identifikatzen zirela iduri du, HGL espediente gehienetan agertzen diren Irakurleek bertzelako espediente gutxitan («ezezaguna-23»ren kasuan, HGL ez ziren 5 espediente) edo bakar batean ere ez baitira agertzen («22-23», «30», «30-23», «22», «30-euskal irakurleak irakur dezala», «22-19»).



15. grafikoa

Irakurleak: HGL vs gainerako espedienteen Irakurleak
(iturria: guk sortua)

b) HGL Irakurleak, ehunekotan

Datu horiek berak ehunekotan emanda (6. taula) ere ideia bera azpimarratuko genuke: HGL espedienteaz gain HGL ez diren espedienteak irakurri eta baloratu zituzten Irakurle erreferentziek nabarmen egingen dute HGL ez ziren espedienteen alde (6. taula, 4. eta 5. kolomak); era berean, agerikoa da hainbat Irakurle erreferentzian biltzen dela HGL espedienteen irakurketa (6. taula, 4. koloma).

Horrez gain, ehuneko horiek espediente guztietatik HGL diren (6. taula, 6. koloma) eta ez direnekiko (6. taula, 7. koloma) ehunekoe-kin alderatuta, sumatzen dugu sei Irakurlerengan metatzen direla espediente guztien HGL ehunekorik handiena: % 8tik gora pilatzen dituzte «ezezaguna eta 23», «22-23», «30», «30-23», «22» eta «30-euskal lek-toreak irakur dezala».

6. taula

Irakurle-HGL zenbaki eta ehunekoak

	(1) HGL bai esp.	(2) HGL ez esp.	(3) Irakurle bakoitzak zenbat esp. guztira	(4) Irakurlearen % HGL bai	(5) Irakurlearen % HGL ez	(6) Bai, % guztira (255 esp. tatik)	(7) Ez, % guztira (294 esp. tatik)
ezezaguna eta 23	67	4	71	% 94	% 6	% 26	% 1
22-23	34	0	34	% 100	% 0	% 13	% 0
30	30	0	30	% 100	% 0	% 12	% 0
30-23	26	0	26	% 100	% 0	% 10	% 0
22	25	0	25	% 100	% 0	% 10	% 0
30-euskal lektoreak irakur dezala	21	0	21	% 100	% 0	% 8	% 0
22-19	10	0	10	% 100	% 0	% 4	% 0
30-8	10	69	79	% 13	% 87	% 4	% 23
zehazgabea	4	19	23	% 17	% 83	% 2	% 6
30-4	3	0	3	% 100	% 0	% 1	% 0
30-2	2	0	2	% 100	% 0	% 1	% 0
30-H (?)	2	0	2	% 100	% 0	% 1	% 0
30 (bi letra desberdin eta euskal irakurleak irakurtzeko)	2	0	2	% 100	% 0	% 1	% 0
30-Jefe de Promoción Editorial	2	0	2	% 100	% 0	% 1	% 0
30, sindura posiblea M.ª C. Rute	2	0	2	% 100	% 0	% 1	% 0
30-H-4	2	0	2	% 100	% 0	% 1	% 0
8	2	42	44	% 5	% 95	% 1	% 14
H	2	53	55	% 4	% 96	% 1	% 18


	(1) HGL bai esp.	(2) HGL ez esp.	(3) Irakurle bakoitzak zenbat esp. guztira	(4) Irakurlearen % HGL bai	(5) Irakurlearen % HGL ez	(6) Bai, % guztira (255 esp. tatik)	(7) Ez, % guztira (294 esp. tatik)
30-23?	1	0	1	% 100	% 0	% 0	% 0
30-H	1	0	1	% 100	% 0	% 0	% 0
data	1	0	1	% 100	% 0	% 0	% 0
23-30	1	0	1	% 100	% 0	% 0	% 0
30 eta euskal irakurleak	1	0	1	% 100	% 0	% 0	% 0
30 (baina bi letra desberdin)	1	0	1	% 100	% 0	% 0	% 0
30-Albizu?-1	1	0	1	% 100	% 0	% 0	% 0
30-23?-Albizu?	1	0	1	% 100	% 0	% 0	% 0
2 eta 23 ezabatua	1	3	4	% 25	% 75	% 0	% 1
3	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
15	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
18	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
23-8	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
«Jardon» (zalantza)	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
La iglesia	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
sinadura	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
H (ondorioztatua)	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
23-2	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
2 (ezabatua)	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
27/H/Hermand (?) (ezabatua)	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
7	0	2	2	% 0	% 100	%	% 1
informea 23k sinatua; kartulina urdinean19	0	2	2	% 0	% 100	% 0	% 1

	(1) HGL bai esp.	(2) HGL ez esp.	(3) Irakurle bakoitzak zenbat esp. guztira	(4) Irakurlearen % HGL bai	(5) Irakurlearen % HGL ez	(6) Bai, % guztira (255 esp. tatik)	(7) Ez, % guztira (294 esp. tatik)
4	0	4	4	% 0	% 100	% 0	% 1
19	0	16	16	% 0	% 100	% 0	% 5
2	0	63	63	% 0	% 100	% 0	% 21
sinadura	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
23 ezabatua	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
informea 23k sinatua; kartulina urdinean 19	0	2	2	% 0	% 100	% 0	% 0
20-H	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
H (ondorioztatua)	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
27-«hermand» ezabatua eta H kartulina urdinean	0	1	1	% 0	% 100	% 0	% 0
Guztira	255	294	550			% 100	% 100

iturria: guk sortua.

c) HGL espedienteak eta gainerakoak irakurri dituzten Irakurleak:
HGLakoak ez diren espedienteen datuak

HGL eta HGLkoak ez bertzelako espedienteetan ere agertzen diren Irakurle erreferentziak bortz multzotan banatu ditugu (16. grafi-koa): horietarik hiru argi identifikatu ahal izan ditugu («30-8», «H» eta «8»), bat erdizka («ezezaguna-23») eta ezin identifikatu izan ditugunak («zehazgabe» multzoa).




16. grafikoa

**Irakurleak: HGL espedienteak irakurri dituztenen artean,
HGL vs HGL ez direnak**
(iturria: guk sortua)

Azken multzo zabal horretan salbu, gainerakoetan HGL espedienteetan agertu arren, nabarmena da (salbu eta «ezezaguna eta 23»ren kasuan) HGL ez diren espedienteetan agerpen gehiago izan dutela bi espediente motetan arituriko Irakurle erreferentziek.

d) HGL espedienteak bakarrik irakurri zituzten Irakurle erreferentziak

Goiko grafikotik abiatuta (16. grafikoa), HGL espedienteak bakarrik irakurritako Irakurleak isolatu ditugu (17. grafikoa). Hala, hogeita bi multzotan banatu ditugu espediente guztietarik HGLkoetan bakarrik agertzen diren Irakurle erreferentzia konbinazioak.




17. grafikoa

Irakurleak: HGL espedienteak bakarrik irakurri dituztenak
(iturria: guk sortua)

Horiatarik seitan biltzen da espediente kopuru gehien («22-23», «30», «30-23», «22», «30-euskal irakurleak irakurtzeko» eta «22-19») eta, gainerakoetan, 4-1 espediente bitartetan agertzen dira Irakurle konbinazio horiek.

e) HGL espedienteak behin ere irakurri ez zituzten Irakurle erreferentziak

Azkenik, HGLkoak ez diren bertzelako espedienteetan bakarrik agertzen diren Irakurle erreferentziak bakartu ditugu (18. grafikoa).



18. grafikoa

Irakurleak: HGL ez diren espedienteak bakarrik irakurri zituztenak
(iturria: guk sortua)


kasu honetan, Irakurle erreferentzia konbinazio desberdinak anitz badira ere, bi zenbakitan biltzen dira gehienak: «2»a (63 espedientekin) eta «19»a (16rekin).

3.3. Itzulpena

3.3.1. itzulpenak: datu orokorrak

a) Itzulpenak, urteka

Orokorrean, itzulpenak diren espedienteen beherakada ez da itzulpena ez direnena bezain nabarmena (19. grafikoa). Alabaina, 1983an goraka egiten dute itzulpenek, gainerako bi espediente motek ez bezala.




19. grafikoa

Itzulpenak, urteka (iturria: guk sortua)

Aipatzekoa da, era berean, elebidunak diren lanen eta itzulpenak ez diren kopuruak beren artean hurbilago direla, itzulpenak direnekin baino.

b) Itzulpena, urteka, ehunekotan

Datu horiei berei urtekako ehunekotan begiratzeak lagundu egiten du aipatu ideiak argitzen (20. grafikoa); izan ere, 1976-1982 bitartean ehuneko handiena itzulpenak ez ziren espedienteena izan zen, eta soilik 1975ean eta 1983an gailendu ziren itzulpenak. Elebidunak, aldiz, 1973an bakarrik izan ziren % 20tik gora.



20. grafikoa

Itzulpena: urteka, ehunekoak
(iturria: guk sortua)

c) Itzulpena-tirada

Itzulpenen tiradei erreparatuta (7. taula), ohartzen gara badirela hainbat tirada espresuki itzulpenak biltzen dituztenak. Tirada txikietan, 200 alekoen tiraden % 100a da itzulpenei dagokiena; ertainetan, 2.600 aleko tiradak dira itzulpenen % 100a bildu dutenak eta 2.500 eta 4.500ekoek % 70etik gora; handietan, adiz 5.500ekoak % 100 bildu arren, 10.000 aleko tiradetan ere % 80tik gora itzulpenak izan ziren eta, % 100 elebidunak, 15.000 aleko tiradetan.

7. taula

Itzulpen handi, ertain eta txikienen ehunekoak

Itzulpena, bai	Elebiduna
Tirada txikietan (≤ 1.000 ale)	
200 alekoen % 100	
	500ekoen % 22,2
	600ekoen % 50
Tirada ertainetan ($1.000 < + < 5.000$ ale)	
2.500 alekoen % 71,4	
2.600ekoen % 100	
3.000koen % 53,2	
4.000koen % 43,5	
4.500ekoen % 71,4	
Tirada handietan (≥ 5.000 ale)	
5.000koen % 58,3	
5.500ekoen % 100	
	6.000koen % 30
9.000koen % 50	
10.000koen % 83,3	
	15.000koen % 100

iturria: guk sortua.

Alabaina, itzulpenen proportzio handiena bildu zuten tiradak izan ziren (8. taula) 5.000koak, itzulpenen kasuan (itzulpen guztien % 24,3rekin) eta 2.000koak, elebidunenean (% 17,1arekin).

8. taula


Itzulpena bai, ez, elebidun direnen artean, ehunekoak

Itzulpena, bai	elebiduna
Proportzio handiena 5.000ko tiradak bildu du % 24,3rekin	Proportzio handiena 2.000ko tiradak bildu du % 17,1arekin

iturria: guk sortua.

3.3.2. itzulpena-HGL


Espedienteen artean (21. grafikoa), itzulpen guztietarik HGLko espedienteak dira gehienak (202tik 153; % 75,7). Era berean, HGL espedienteetatik % 60,2 (255etik 153) dira itzulpen.



21. grafikoa

Itzulpena: HGL diren vs HGL ez direnak
(iturria: guk sortua)

Urtekako alderaketa eginez (22. grafikoa), gero, lehen hiru urteetan beheranzko joera bada ere, itzulpen eta HGL-espedienteen arteko harremanari urteka erreparatuta, gora-behera konstanterik gabeko erlazioa dela sumatzen da




22. grafikoa

Itzulpenetatik HGL direnak

(iturria: guk sortua)

Edonola ere, 1977an eta 1982an salbu (azken horretan, proportzio berean), gainerako urte guztietan itzulpen espediente gehienetan HGL espedienteak izan dira nagusi.

HGLren baitako azpisailkapenari erreparatzen badiogu, literaturazkoen artean gehienak (% 68,4) itzulpenak izan ziren; didaktikakoak, aldiz, ez (% 48 izan ziren itzulpenak). Elebidun guztiak didaktika lanak izan ziren.




23. grafikoa

Literatura eta didaktika: itzulpena vs jatorrizkoa vs elebiduna
(iturria: guk sortua)

3.3.3. itzulpena-irakurlea

Itzulpenak ebaluatu zituzten 23 Irakurle konbinazio agertzen dira aztergai izan ditugun urteetan (24. grafikoa). konbinazio horietan, 16 zenbaki/izendapen agertzen dira («data», «euskal irakurlea», «ezezaguna», «H», «H?», «Jefe de Promoción Editorial», «M.^a C. Rute (?)», «2», «2 ezabatua», «4», «8», «19», «22», «23», «23 ezabatua» eta «30»).



24. grafikoa

Itzulpena: itzulpenetako Irakurleak


(iturria: guk sortua)

Edonola ere, 10 Irakurle konbinazio dira itzulpenak diren espedienteak itzulpenak ez direnak baino gehiago biltzen dituztenak: «22-23» (% 94,1), «22» (% 92), «ezezaguna eta 23» (% 52,8), «zehazgabea» (% 45,8), «30» (% 72,4) eta itzulpenak bakarrik irakurri zituztenak «30-4», «data», «30 eta euskal irakurlea», «30-H?», «30-Jefe de promoción Editorial» eta «2».

Horiez gain, itzulpenak diren eta ez direnak erdi eta erdi irakurri zituztenak (% 50 itzulpen, % 50 itzulpena ez diren espedienteak): «30-2», «2 eta 23 tatxatua» eta «30 eta sinadura M.^a C. Rute (?)».

3.3.4. itzulpena-generoa

Itzulpen espedienteetan, hiru genero dira gailentzen direnak (25. grafikoa): «HGL narratiba» itzulpen espediente guztien % 40,59arekin, «komikia» % 27,23arekin eta «zehaztugabea: erlijio liburua» % 9,9arekin.




25. grafikoa

Itzulpena: generoak
(iturria: guk sortua)

komikiaren kasuan, itzulpenak ez diren espedienteen artean ere gailendu egiten da % 18,33arekin, «Zehaztugabea/aldizkaria» (% 12,67), «Saiakera/testuliburua?» (% 11,67), «HGL narratiba» (% 11,33) eta «Zehaztugabea (erlijio liburua)» (% 11) direnekin batera.

26. grafikoan ikusten dira itzulpena diren espedienteen artean generoen proportzioak, ehunekotan (kontuan izan batere itzulpenik gabeko generoak grafikotik kendu ditugula):



26. grafikoa

Itzulpena: genero ehunekoak, generoaren baitan

(iturria: guk sortua)

Hala, «kritika/teoria?», «Zehaztugabea (erlijio liburua/komikia)», «Testuliburua (hiztegia)», «HGL komikia/narratiba» eta «HGL komikia» generoetan itzulpenak dira espedienteen % 100a.

3.4. Irakurleak

3.4.1. irakurleak: datu orokorrak

a) Irakurle eta informeak, urteka

Ikerketa gune diren urteetan zehar gailendu diren Irakurle erreferentziak honakoak izan ziren:

9. taula

Parte hartu eta gailendu ziren Irakurle erreferentziak

Urtea	Parte hartu zuten Irakurle erreferentziak	Gailenduriko Irakurle erreferentziak (espediente kopurua)
1975	30-8, 22-23, 22, 30-23, 19, 22-19, ezezaguna eta 23, informea 23k sinatua; kartulina urdinean 19, 18, 30-23?, 23-8, sinadura, zehazgabea, 30-Albizu?-1, 30-23?-Albizu?	30-8 (41), 22-23 (34), 22 (25), 30-23 (18), 19 (16)
1976	30-8, ezezaguna eta 23, 2, 30-23, 2 eta 23 ezabatua, zehazgabea, 30 (sinadura posiblea M. ^a C. Rute), 7, 30-2, 23-2, 23	30-8 (25), ezezaguna eta 23 (25), 2 (14), 30-23 (7), 2 eta 23 ezabatua (4)
1977	2, ezezaguna eta 23, zehazgabea, 30-8, 30-23, 30-2, 4, 15, La Iglesia, 2 (ezabatua)	2 (49), ezezaguna eta 23 (7), zehazgabea (5), 30-8 (4)
1978	H, ezezaguna eta 23, zehazgabea, 4, 30-4, 30-H?, 30-H-4, «Jardon» (zalantza), H (zalantza) 30 eta euskal irakurleak irakur dezala, 27-H-Hermand(?) (ezabatua)	H (47), ezezaguna eta 23 (11), zehazgabea (9), 4 (3), 30-4 (3)
1979	Ezezaguna eta 23, 8, H, 30, 7, 30-H	Ezezaguna eta 23 (21), 8 (18), H (8), 30 (3)
1980	8, 30, 30-8, zehazgabea, 30 eta euskal irakurleak irakur dezala, 30 (baina bi letra desberdin)	8 (16), 30 (8), 30-8 (7), zehazgabea (2), 30 eta euskal irakurleak irakur dezala (2)

Urtea	Parte hartu zuten Irakurle erreferentziak	Gailenduriko Irakurle erreferentziak (espediente kopurua)
1981	8, 30 eta euskal irakurleak irakur dezala, 30, zehazgabea, 30 (baina bi letra desberdin) eta euskal irakurleak irakurtzeko, 30-fefe de promoción Editorial	8 (10), 30 eta euskal irakurleak irakur dezala (4), 30 (3)
1982	30-euskal irakurleak irakur dezala, 30, zehazgabea, 30-8	30-euskal irakurleak irakur dezala (9), 30 (3)
1983	30, 30-euskal irakurleak irakur dezala, zehazgabea	30 (13), 30-euskal irakurleak irakur dezala (6)

iturria: guk sortua.

Urte guztietan konstanteen agertzen den Irakurle erreferentzia «30» da, nahiz eta urtekako garapen desberdina duten izendatzeek (9. taula): 1975 eta 1976an, «22», «23» eta «30»a nagusitzen dira, eta «30»a ez da nabarmentzen berriz ere 1982 eta 1983a arte; tarteko urteetan, 1977an «2»a, 1978an «H»a eta 1979an «23»a dira nabarmentzekoak; 1980-1981ean «8»a agertzen da.


3.4.2. irakurle-informe laburpena

kasu honetan, hainbertze Irakurle izanik, informazio osotik bakandu ditugu informe gehien dituzten Irakurleak eta informean arazoak adierazi zituztenak.

a) Informe gehien dituztenak

Irakurle erreferentzien artean badira zenbait bertzeek baino dezente informe gehiago sinatu zituztenak (27. grafikoa). Hala, «Irakurleak: informe gehien dituztenak» grafikoan (27.a) bildu ditugu gehien agertzen diren Irakurle izen/zenbaki konbinazio horiek (10etik gora informean agertzen diren Irakurle erreferentziak). Guztien artean, «30» eta «23» Irakurleak dira, bakarka edo bertzeren batekin batera sinatuta, oparoenak.

Informazio hori bera, modu desberdinean kokatua agertzen da «Informe gehien sinatutako Irakurleak» taulan (10.a). kasu honetan, azpimarratu ditugu informeak egin zirela adierazten duten datuak. Horrez gain, esanguratsua da Irakurle horien guztien kasuan «aurrera» egiteko mandatua izan zela nagusi.



27. grafikoa

Irakurleak: informe gehien dituztenak

(iturria: guk sortua)

10. taula


Informe gehien sinatutako Irakurleak

	«Denun- cia»	Denuntzia edo informe negatiboak	«Impug- nable»	Denunciable / denegable»	«Deli- cado»	«Sin impugnación pero no es aconsejable»	«No se puede decir que es un libro “conveniente”...»	«Antece- dentes»	«Autorizable» + «Denunciable»	«Revisado» + «Se recomienda el cambio de calificación»	Aurrera	«Aconse- jable»	«Revisado» + «aconsejable/ recomendable»	Guztira, informe kantitatea
30-8	0	0	0	2	1	0	0		0	0	74	1	0	78
ezezaguna-23	0	0	0	0	0	0	0		0	0	69	0	3	72
2	1	0	1	0	0	0	0		1	0	60	0	0	63
H	0	0	0	0	0	1	1		0	0	53	0	0	55
8	0	1	0	0	0	0	0		0	0	43	0	0	44
22-23	0	0	0	0	0	0	0		0	0	34	0	0	34
30	0	0	0	0	0	0	0		0	0	29	0	0	29
30-23	0	0	0	0	0	0	0		0	0	25	1	0	26
zehazgabea	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	23	0	0	24
22	0	0	0	0	0	0	0		0	0	25	0	0	25
30-euskal lekto- reak irakur dezala	0	0	0	0	0	0	0		0	0	21	0	0	21
19	0	0	0	0	0	0	0		0	0	16	0	0	16
22-19	0	0	0	0	0	0	0		0	0	9	0	1	10

iturria: guk sortua.

b) Informe negatiboak egin dituzten Irakurleak

Informe negatiboak egin zituzten Irakurle erreferentziak 6 izan ziren (28. grafikoa). Horietarik, azpimarratzekoak dira «23-2» eta «23» Irakurle erreferentzien ebaluazioak, bien kasuan txosten bana egin eta, txosten bana horietan, «denuncia» izan baitzen kalifikazioa.



28. grafikoa

Irakurleak: informe negatiboen Irakurleak

(iturria: guk sortua)

«2» Irakurleak, bakarka, txosten anitz sinatu zituen (63; ikus 28. grafikoa edo 10. taula) eta, horien artean, 3 kasutan txosten negatiboa bana egin zuen: «denuncia», «autorizable» + «denunciable» eta «impugnabile». «23»ak, ordea, bertze txosten dezentetan parte hartu bazuen ere, ez zuen txosten negatiborik sinatu.

4. LABURPENA ETA ONDORIOAK

Aztergai izan ditugun 1975-1983 bitarteko euskarazko liburuen kasuan, zentsura espediente kopuruaren joera eta urtekako ale kopurua beheranzkoa izan zen, ikergai izan ditugun urteetan. Aldiz, espediente ale kopuruari erreparatzen badiogu, ohartzen gara joera goranzkoa izan zela, azken urtean salbu.

Bi joera desberdin horien gibelean tiraden tamaina dago. Tirada handien kasuan (≥ 5.000 ale), urteko espedienteen kopurua, gehiengotan, % 37 ingurukoa izan bazen ere, espediente horiek bildu zituzten urteko ale kopuruaren % 50 inguru. Espedienteen urteko ehunekoa txikiagoa izan zen ale kopuruaren ehunekoa baino: espediente ehuneko txikiagoa bildu arren, ale kopuru gehiena metatu zuten 5.000 ale edo gehiagoko tiradek. Gauza bera gertatzen da tirada ertainen kasuan, 5.000-1.000 ale bitarteko espedienteen ehunekoa handiagoa izan baitzen urteko ale kopuruarena baino. kontrakoa da tirada txikien kasua; izan ere, 1.000 ale edo gutxiagoko espedienteen urteko ehunekoa handiagoa izan zen ale kopuruaren urteko ehunekoa baino. Hortaz, tirada ertainek urteko ehuneko handiena bildu arren, tirada handienak izan ziren urteko ale kopuru handiena bildu zutenak.

Liburuaren ale (zattia) atxikia izateari dagokionez, aztergai izan ditugun lehen eta azken bi urteetan salbu, espediente gehiengotan ez zen alerik bildu, eta bai espediente bai eta urtekako ale kopurua gehien jaitzi zen urtea 1975etik 1976rako izan zen.

HGL zentsura espedienteen kasuan, 1976-1979 bitartea izan ezik, gainerako urteetan HGL espedienteak izan ziren nagusi. Alabaina, azpimarratzekoa da 1980tik aitzina beheranzko joera izan zela nagusi HGL ziren eta ez ziren espedienteen artean.

HGL espedienteen artean didaktikako eta literaturako azpisailkapenari erreparatzen badiogu, 6 urtez gailendu dira literaturari dagozkionak eta, 4tan, didaktikoak. 1979tik aitzina (1982an salbu), HGL-literaturako espedienteak gailendu ziren. HGL ez ziren espedienteak gailendu ziren urte tartean (1976-1979) didaktikakoak nagusi izan baziren ere, ez da joera garbirik sumatzen, urte guztietan zeharreko garapenari erreparatuta.

HGL azpigeneroei dagokienez, urtez urteka lehia narratiba eta testuliburuaren artekoa izan zen, eta beren artean txandaka gailendu zirela

sumatzen da. Gainera, ikusten dugu HGL espedienteetan azpigenero desberdinak gailendu zirela didaktikarako eta literaturarako. Lehenetan, testuliburuak eta gramatika eta hiztegiak gailendu ziren, erlijio eta doktrinez gain; bigarrenetan, maizen agertzen den narratibaz gain, komikia, hainbat genero, poesia, antzerkia, txisteak eta saiakera (biografia).

HGL espediente eta Irakurle harremanari dagokionez, datuek erakusten dute HGL espedienteekin espresuki loturiko Irakurle erreferentziak egon zirela: «euskal irakurlea», «ezezaguna», «22», «23» eta «30». Hala, batetik, badira HGL espedienteak bakarrik irakurri zituzten Irakurle erreferentziak eta, bertzetik, HGL espedienteak eta bertzelakoak irakurri zituzten Irakurle erreferentzietan, nabarmen egiten du gora HGL ez diren espediente kantitateak.

Itzulpenak diren eta ez diren espedienteek beheranzko joera izan zuten 1975-1983 bitarte, nahiz eta beheranzko joera horren malda nabariagoa izan itzulpenak ez ziren espedienteen kasuan. Edozein gisatan, itzulpenak ez ziren espedienteena izan zen ehunekorik handiena 1976-1982 bitarte. Itzulpen horiek tiradekin izan zuten loturari dagokionez, ikusten da izan zirela hainbat tirada itzulpenekin espresuki lotuak, 5.000koak izan zirelarik itzulpen proportzio handiena bildu zutenak. Tirada txikien kasuan 2.600, 2.500 eta 4.500ekoak; ertainetan, 2.600, 2.500 eta 4.500koak; handien kasuan, 5.500 eta 10.000koak.

Lotura estuak nabari dira, era berean, itzulpen-HGL espedienteen arteko harremanean, agerikoa da itzulpen espediente gehienak HGLkoak izan zirela, % 75etik gora. Baita Irakurleekin ere, 10 Irakurle konbinazio izan baitziren itzulpenak ebaluatu zituztenak eta, horietan, 2, 22, 23 eta 30 Irakurleak dira itzulpen gehien ebaluatu zituztenak aztergai diren urteetan.

Harreman estua sumatzen da, era berean, itzulpen eta genero zenbaiten kasuan; izan ere, «HGL-narratiba» bada ere nabarmen gailentzen den generoa, «komikia» eta «zehaztugabe: erlijio liburua» generoak ere bertzeen gainera dira. Era berean, itzulpen diren eta ez diren espedienteen artean, errepikatu egiten dira lehen 5 nabariak diren artean «Komikia», «HGL narratiba» eta «Zehaztugabea (erlijio liburua)» generoak.

Hala, bada, itzulpen espedienteen kasuan, nabaria da, HGLkoetan gertatu gisa, bai Irakurle erreferentziak baita genero zenbait ere gailendu egiten direla.

Irakurle erreferentzia zenbait izan ziren, prezeski, txostenetan nagusi. Txosten gehien egin zituzten Irakurleen kasuan, bi erreferentzia gailentzen dira: 30a eta 23a. Horrez gain, azpimarratzekoa da txosten gehien egin zituzten Irakurleen artean nabarmen egin zutela «aurrera» balorazioaren alde. Ez da, ordea, gauza bera gertatzen arazoak agertzen dituzten Irakurle zenbaiten kasuan: «23-2» eta «23» Irakurleen kasuan, txosten bana sinatu zuten eta, bi kasuetan, denuntzia izan zen beren balorazioa.

Ondorioz, 1975-1983 bitarteko euskarazko liburuen zentsura espedienteak estatistikoki landu ondotik erran genezake, batetik, espediente kopuruak behera egin zuela, tirada tamainarekin erlazioan. Bertzetik, 1979tik aitzina HGL espedienteak izan zirela nagusi, horien baitan literatura nagusitu zelarik, eta narratiba eta testuliburuen artekoa izan zen HGLkoen artean lehia nagusia. Hirugarrenik, hainbat aldagaien artean harreman estua dagoela egiaztatu da: hainbat Irakurle erreferentzia eta HGL espedienteen, itzulpen-tirada, HGL-itzulpen eta itzulpen-genero artean. Laugarrenik, bi Irakurle erreferentzia gailendu ziren, aurrerako balorazioa izan zelarik nagusi horien artean.

Akitzeko, etorkizunean hemen eskaintzen diren datuak urteko argitaratu ziren liburuen datuekin erkatu nahi ditugu. Hala, 1975-1983 bitarte frankismoko zentsura sistematik pasatako euskarazko liburu erregistratuen datuak alderatu ahal izanen ditugu argitaratu ziren euskarazko liburuekin.

5. AIPATURIKO BIBLIOGRAFIA

Dendaluze, I. 2002. Ciencias sociales e investigación. In Eusko Ikaskuntza (koord.), *Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*, 2. lib., 1139-1158. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.

6. GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoak koloretan ikusteko:



Fragiak, koloretan (mhli.net)

1. grafikoa. Espediente kopurua, urteka (*iturria*: guk sortua) (225. or.).
2. grafikoa. Tiradak: ale kopurua, urteka (*iturria*: guk sortua) (226. or.).
3. grafikoa. Urteko: ale kopurua, espediente kopurua eta ale kopuru espedienteko media (*iturria*: guk sortua) (227. or.).
4. grafikoa. Tirada handienak: ehunekoak, urteka (*iturria*: guk sortua) (228. or.).
5. grafikoa. Tirada txikienak: ehunekoak, urteka (*iturria*: guk sortua) (229. or.).
6. grafikoa. Tirada ertainak: ehunekoak, urteka (*iturria*: guk sortua) (230. or.).
7. grafikoa. Alea/ale zatia bai ala ez, urteka (*iturria*: guk sortua) (231. or.).
8. grafikoa. HGL espedienteak, urteka (*iturria*: guk sortua) (233. or.).
9. grafikoa. HGL: espediente ehunekoak, urteka (*iturria*: guk sortua) (234. or.).
10. grafikoa. HGL tiradak, urteka: HGL vs gainerako espedienteak (*iturria*: guk sortua) (235. or.).
11. grafikoa. HGL urteka: HGL (didaktika eta literatura) vs gainerako espedienteak (*iturria*: guk sortua) (238. or.).
12. grafikoa. Literatura vs didaktika vs gainerako espedienteak, ehunekoak (*iturria*: guk sortua) (239. or.).

13. grafikoa. HGL: generoak, urteka (*iturria: guk sortua*) (240. or.).
14. grafikoa. HGL: genero ehunekoak, urteka (*iturria: guk sortua*) (241. or.).
15. grafikoa. Irakurleak: HGL vs gainerako espedienteen Irakurleak (*iturria: guk sortua*) (243. or.).
16. grafikoa. Irakurleak: HGL espedienteak irakurri dituztenen artean, HGL vs HGL ez direnak (*iturria: guk sortua*) (247. or.).
17. grafikoa. Irakurleak: HGL espedienteak bakarrik irakurri dituztenak (*iturria: guk sortua*) (248. or.).
18. grafikoa. Irakurleak: HGL ez diren espedienteak bakarrik irakurri zituztenak (*iturria: guk sortua*) (249. or.).
19. grafikoa. Itzulpenak, urteka (*iturria: guk sortua*) (250. or.).
20. grafikoa. Itzulpena: urteka, ehunekoak (*iturria: guk sortua*) (251. or.).
21. grafikoa. Itzulpena: HGL diren vs HGL ez direnak (*iturria: guk sortua*) (253. or.).
22. grafikoa. Itzulpenetatik HGL direnak (*iturria: guk sortua*) (254. or.).
23. grafikoa. Literatura eta didaktika: itzulpena vs jatorrizkoa vs elebiduna (*iturria: guk sortua*) (255. or.).
24. grafikoa. Itzulpena: itzulpenetako Irakurleak (*iturria: guk sortua*) (256. or.).
25. grafikoa. Itzulpena: generoak (*iturria: guk sortua*) (257. or.).
26. grafikoa. Itzulpena: genero ehunekoak, generoaren baitan (*iturria: guk sortua*) (258. or.).
27. grafikoa. Irakurleak: informe gehien dituztenak (*iturria: guk sortua*) (261. or.).
28. grafikoa. Irakurleak: informe negatiboen Irakurleak (*iturria: guk sortua*) (263. or.).

7. TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Gaineratutako aldagaiak eta horien sailkapena (*iturria: guk sortua*) (220. or.).
2. taula. Aldagaiak, eskuratu eta falta diren datuak (*iturria: guk sortua*) (222. or.).
3. taula. Tirada handietan handienak (1975-1977) (*iturria: guk sortua*) (229. or.).
4. taula. Alea/ale zatia bai ala ez, urteka, ehunekotan (*iturria: guk sortua*) (232. or.).
5. taula. HGL ale kopuru, espediente eta HGL ez direnak, urteka, ehunekotan (*iturria: guk sortua*) (236. or.).

6. taula. Irakurle-HGL zenbaki eta ehunekoak (*iturria*: guk sortua) (244. or.).
7. taula. Itzulpen handi, ertain eta txikienen ehunekoak (*iturria*: guk sortua) (252. or.).
8. taula. Itzulpena bai, ez, elebidun direnen artean, ehunekoak (*iturria*: guk sortua) (252. or.).
9. taula. Parte hartu eta gailendu ziren Irakurle erreferentziak (*iturria*: guk sortua) (259. or.).
10. taula. Informe gehien sinatutako Irakurleak (*iturria*: guk sortua) (262. or.).